Idazle honek, azpaldidanik zuen, Kultur Elkarteko "DEBA" aldizkarian Kontxita Azpeitiaren biografia idazteko asmoa. Urte askotan zehar haur eta umeak maneiatzeko duintasun berezi bat erakutsi duen emakume honen bizitzako istorio eta bizipenak ezagutu eta jakinarazteko gogoia zuen. Eskerrona eta goraipe ugari merezi izan dituen duintasun berezi hori. Lehenik, nagusi egin direnean, haurtzaroan izan zuten lehen andereinoak beraiekiko izan zuen tratu on eta duintasuna balioztatu duten hainbat pertsonen hitz onak daude, baina baita hauen gurasoengatik eta baita bere ikastolako lankide eta bertako arduradunengatik goraipe eta eskerron ugari ere... Izan ere, batez ere bere buruarantzako baina baita baliogarri izan zitzaizkien guztientzako ere, betirako geratu den lan bikain hori omentzeko egin zaitzkiezen goraipe eta omenaldi txiki baina polit eta goxoak izan dira...

Katekesiari eta San Rokeetan ospatzen den "Umeen eguneko" berezko mila eta bat lan eta betebeharreri emandako dedikazio eta orduen berri ere bageneukan...

Baina hala eta guztiz ere, biografia hau egiteko ideiak, frenoa izan zuen lehendabizi... Eta ez idazle honentzat lerro hauek idazteak izango lukeen lanagatik, ez... Arrazoa, Kontxita baiezkoa emateko izan zituen kezka... Izan ere, berez oso lotsatia izanik, Kultur-eko aldizkarian irtetzeak emango zion nabaritasuna gustokoa ez zuela eta, lehen proposamenei ezezko tinkoa eman zien. Baina azkenik eta, bere ohizko atsegintasuna eta kolaborazioa eskatzen dioten pertsoneri laguntza eskeintzeko duinak, kontrako iritziak gainditzeko adorea eman eta, elkarrizketa egitea onartu zuen.

Elkarrizketa, Azpeitiatarren etxebizitza berriko egongela izan zen. Jakina da, zoritxarreko ezbehar batengatik, Kontxita eta bere anaia Soterok (ezkongabeak biak), beraien Iturkaleko bizi guztiko etxea utzi eta San Joxepeko beste etxebizitza batera aldatu beharrean aurkitu zirela... Hala ere, eta gure protagonista gaurko etxebizitzan nola moldatzen den ikusita inork ez luke beti bertan bizi izan ez denik esango... Kuadro, argazki eta, bizitza oso bateko oroitzapen eta gogorapen atseginek, oraindik "berria" den baina hala ere gustokoa egiten zaion egongela gustoz apaintzen dute...


Bere familiaren hainbat eta hainbat oroitzapen eta emoziozko gogorapen ugariz betetako egongela hau izango da beraz gure elkarrizketa garatuko den tokia. Ohizko agurpenen ondoren, elkarrizketa, Kontxita erakusten dizkigun ehundaka argazkiek erakartzen dizkiguten oroitzapenekin hasten da. Erakusten dizkigun argazki batzu, bagenekien zerbait frogatzen digute, hau da, Kontxita gaztetan benetan ere oso emakume polita izan zela, ondorengo urteetan zehar ere ederra eta, urteen igarotzeak uzten duen mailan gaur egun ere bikain jarraitzen duela...



Kontxita oroimen ezinobea gordetzen du bere gurasoek eta bien argazkiak gordetzen ditu maitasunez.



Kontxita, lehenengo Umeen Egunetako batean ume talde bat zuzentzen. (1970. urtean inguru)



Kontxitarren oroipenari lotuta dauden eta umeen partehartzea jasotzen duten argazki ugari.



1980. urtea. Kontxita ikastolan bere kargu zituen ume talde batekin.

DEBAKO AZPEITIA-UNANUETARRAK

Biografiari hasera emateko orduan, gure protagonistaren adina galdetzea ezinbestekoa da, baita bere gurasoei buruzko galderak egitea ere. Kontxita Azpeitia Unanue gaztetasuna atzean utzitako emakumea da baina (agian agerian duen gaztetasunagatik) ez du bere adina esateko inolako arazorik erakusten. Horrela 1927. urtean jaio zela eta, beraz, 75 urte bete berriak dituela esaten digu. Bere gurasoek, debarra aita eta itziartarra ama, 6 seme-alaba izan zituzten (Sebastian, Kontxita, Nati, Sotero, Lurdes eta Maria Pilar) eta horietatik, Sebastian hilda dago eta Nati eta Lurdes, Frantzian bizi dira. Kontxita eta Sotero ezkongabe dira eta betidanik bizi izan dira, lehenengo gurasoekin eta ondoren biak, Iturkaleen zegoen familiaren etxean

Aita, Esteban, eta, ama, Frantziska-ren argazkiek oheretako tokia daukate elkarriketan diraugun egongelan. Kontxita beraien emozioz betetako gogorapen bizia gordezen du, nahiz eta urte asko igaro diren biak hil zirenetik...

Nire gurasoek -dio Kontxitak- **gogor egin behar izan zuten lan, gerrate zibila eta gerrate ondorengo urte gogorretan 6 seme-alaba aurrera ateratzeko...**

Eta dakidanez, gogorragoa ere izan ahal zitekeen, inoiz ideologi politiko ardoretsurik izan ez zuen eta trenbideetako langile apala zen nire aita, atxilotu egin bait zuten Bilbon nazionalak... Beste askorekin batera epaitua izan eta mirariz ez zen fusilatua izan...

Guda aurretik Azpeitia-Unanue sendiaren bizitokia izan zen Iturkaleko etxebizitza haretan igaro zituzten gerrate zibileko urteak eta, baita, ondorengo urte ugari ere. Bere gurasoek, senar-emazte guztiek berezko dituzten momentu on eta txarrak, Debako eleizako klaustroaren kanpoko hormetatik hain hurbil zeuden eta berari hain denbora zoragarriak gogoratzen zizkioten pareta haien artean bizi izan zituztela esaten digu Kontxitak. Eta, era berean, urteak aurrera zihoazen arabera, pixkanaka, normaltasunez Kontxita eta bere anaien jaiotzaren lekuko ixil ere izan zirela.

Etxe haretan hasi ziren eta baita familiaren bizipenak (gozoak eta gogorrak) elkarrekin igaro ere. Eta etxe haretan baita, beraien ordua heldu zenean, hil ziren bere gurasoak...



1986. urteko abuztua. Kontxita eta bere "morrosoak" Umeen Eguneko ospakizunetan parte hartzeko prest.

Anaia nagusia -darrai Kontxitak- **eta nire ahizpak, ezkondu zirenean, joan egin ziren familiaren etxetik...**

Baina nire anaia Sotero eta ni beti bizi izan gara bertan, Iturkalean...

Horregatik, eta gure etxebizitza izateaz gain, guretzako oso berezia eta samina zen...

4 pareta haiek, gordetzen zituzten gogorpenak, gure mundu osoa ziren...

Gaur egun, ez ginateke, ezbeharrak bultzatu izan ez baligu, beste inon biziko...

Denok dakigunez, gaur egun, urte askotan zehar Azpeitia-Unanue familiaren etxebizitza izandakoa eta baita etxea bera ere bota egin behar izan dute. Dirudienez, termitek, etxearen egurrezko euskarri zaharrak erabat zulatu zituzten... Egoera larri hau ikusi zenean, Udaletxeak hartu zuen parte eta, segurtasunagatik biztanle guztiak etxea utzi eta beste toki batzuetara alde behar izan zuten. Trauma gogorra izan zen hura; Kontxitak dionez berak ez du oraindik erabat gainditu... Beno, dena den, etxe hori ez dago jada tente. Hutsune handi bat baino ez da ageri orain arte hestua zen Iturkalean behin gure pertsonaiaren etxebizitza zegoen tokian.

LEHENENGO ESKOLAK

Elkarrizketaren harira itzultzen gara eta, Kontxitak ikasle bezala igarotako denboretaz hitzegiten digu; azpaldiko denborak dira haiek, gure Kontxita oraindik ume izanik eta bere adineko beste neskatxa batzurekin batera, neskatxoentzako zegoen ikastetxea zuzentzen zuten monja teresatarren esku utzi zutenean...

Esan dugunez, nekez gogoratzen ditu garai haiek... lehen idatzi eta irakurketak, matematikak, erlijioa, funtzezko antzerkilarik eskenaratu... Gogoan ditu baita, okerren bat egiten zuten neskatxari, monjek ematen zizkieten zapladak... Kontxitak ez du garai haietako irakasleak maiz erabiltzen zuten jarduera hau kritikatzeko, bere ustez, beste garai batzu bait ziren haiek. Bizitzaren atal guztietan eta, baita eskola arloan ere.

Orduan -dio Kontxitak- **eskolan, umeei zapladak ematea, jarduera arrunta zen... Nire ustez, orduko maixu eta andereño-gehienek erabiltzen zuten metodo hau... Gaur egun ordea, gauzak oso ezberdinak dira... Ez dut uste, gaur eguneko irakasle batek berak ere ez duela horrelako zigorririk ezartzen...**

Zigor hauen bidean jarraituz, berari inoiz ez zaiola horrelako zigorrik ezartzea gustatu esaten digu Kontxitak... Are gehiago, bere metodologia erabat ezberdina izan da... Izan ere, umeen munduari zuzendutako lanetan hainbat urte igaro ondoren, Kontxitak ume guztiak asko maite dituela eta huez inguratua egotea oso atsegina zaiola argi geratu da... Dudarik gabe, gure protagonistaren izaera hau debataraz guztiok ondo ezagutu eta baiostatu dugun ezaugarri bat izan da beti.

Eta Kontxitaren izaera honek azaltzen du, bere kargu zeuden umetxoaren artean zigorra merezi zuen okerkeri, desobeditze edo umekeria bat agertzen zenean, ageri zuen ulermen eta tolerantzia eta, baita klasea nahasten zion umetxo oker hori hobeto ezagutzeko egiten zuen ahalegina ere.



1982. urteko Umeen Eguna Kontxita laguntzaile. "AUPA MOTEL".

Beno, baina ikasle gaztetxoa zeneko gogorapenekin jarraitzeko, gaur eguneko herri azoka dagoen tokian zegoen eta Escuelas Nacionales izenarekin ezagutzen ziren ikastetxean izandako gertaera batzu ere kontaktatzen dizkigu Kontxitak. Han, Mari Tere irakasleak ematen zituen klaseetara joaten zen eta, gure protagonistak berarengan duen oroitzapen ona kontutan hartzen badugu, pertsona eta andereño bikaina izan zela sinesten dugu.

ELORRIXAN ANDEREÑO

Garai haietako heziketa arduradunei nahikoa iruditzen zitzairen ikasketak burutu ondoren, Kontxita Azpeitia, Elorrixako eskola txikiko irakasle gisa hasi zen lanean. Garai haietako bere lehen oroitzapenak 1945. urtekoak dira... Elorrixako eskolan zegoen irakaslea joan zen ondoren, auzo txikiko haurren ikasketa egoera oso larria zela esaten digu Kontxitak. Izan ere, alde egin zuen andereñoak ez zuen ordezkorik utzi eta, ez zegoen oraindik ikasleentzako garraio aukerarik. Arazoa konpontzeko eta haur haiek ikasten jarraitu zezaten, pertsona batzu, mugitzeko beharrean aurkitu ziren...

Egin beharra zegoen eta garai haietan Itziaroko apaiza zen Manuel Lizarragak hartu zuen bere gain arazoa konpontzeko ardura eta, horrela, eta lehendabizi Esteban Azpeitiarekin (aitarekin) eta ondoren Kontxitarekin hitzegin ondoren, Elorrixako irakasle bezala kontratatu zuen, arazoari amaiera emanez...

Nik orduan -dio Kontxitak- 18 urte nituen eta hura izan zen nire lehen lan serioa... Inoiz ez nuen klaserik eman eta, oraindik gutxiago irakasle lanak bete...

Landa ikastetxe txiki bat zela gogoratzen dut eta, baita han zeuden ume lotsati guztiak.

Gehienek, beraien adinean normala zena baino gutxiago zekiten...

Inguruetako baserriko seme-alabak zirela ere gogoratzen dut... Eta hauen artean garai haietan Sakonetako kuartelean zeuden Goardia Zibil batzuen zenbait seme-alaba ere bai...

Kontxitak, lojikoki ikastetxe hartan ematen zituen ikasketak oso basikoak zirela ere esaten digu. Eta ume gehienak erabat euskaldunak izanik, Kontxitak haseratik nabaritu zuen bera ulertzea ezinbestekoa zela... Liburuak, azalpenak, ikasgaiak ondo ulertuak izan zitezten asko saiatu zen... Berehala ikusi zuen ume bakoitzari bere jatorrizko hizkuntzan erakustearen garrantzia... Gauza guzti hauek ez ziren garai haietan landa-eskola batean oso sarritan ikusten. Gaztea, esperientziarik gabe eta, gauza gehiegirik jakin gabe Elorrixako irakasle bihurtuta, oso duina eta arrazonagarria zela erakutsi zuen bere zentzuaz fidatu behar izan zuen. Eta horrela, orduan dagoeneko mirestuak ziren bere atsegintasuna eta pazientziak, berehala irabazi zituen ikasle, hauen guraso eta auzoko guztien onespenak.



Debako jaietako Umeen Eguna. Kontxita zapi gorria soinean. 1985. urteko abuztua.

Eta ez Elorrixa auzoan soilik, garai haietan (50. hamar-kada zen), gure herrian behintzat, irakaskuntzaren mundua oso gutxi garatua zegoen, gaur egunean ezagutzen dugunarekin konparatzen badugu behintzat. Eta, horrela, Lastur, Itziar eta Endoixakoak ere oso maila gutxiko landa-eskola txikiak baino ez ziren... Eta hauen txikitasunak eta zuten isoladura handiagatik, ez ziren tituludun andereñoen gustokoak eta, horrela, lehen aukera agertzen zitzaientean, kasualitatez bertara bidaliak izaten ziren irakasleak toki hobeago batera aldegin nahi izatea ez zen batere harritzekoa...

Gauzak horrela izanik eta, luzaroan, auzoetako ikastetxe hauetan geratuko zen andereñorik gabe, eskolara joateko adinean zeuden baseritarrak, beraiek ordaintzen zituzten irakasle titulurik gabeko baina aski prestatuta zeuden emakumeak kontratatzea behartuta zeuden. Honek azaltzen du nola iritxi zen Kontxita Elorrixara. Lan berdina zeukaten beste emakume batzuen gisa, aste egunak inguruko baserri batean igarotzen zituen pentsio tankeran eta, azkenik auzoko baserri guztiek ematen zuten diru laguntzarekin ordaintzen zitzaion andereñoari akordaturakoto soldata.

Kontxitak, Elorrixako ikastetxean 12 urtez egon zela esaten digu... Eta garai haietako bizipenei buruz galdetzen diogunean, gogorapen bikainak dituela esateko beharrik ez du, aurpegiari agertzen zaion irribarre atsegina ikustearekin aski bait da.

Atseginez zaindu nituen haur haiek beti-dio Kontxitak- eta lagun onak egin nituen eskolan eta baita auzoan ere...

Gaur egun, hainbeste urteren buruan ere, askok agurtzen naute eta nigatik galdetu eta, nire ustez benetako adiskidetasunaz...

Hori bait da, ahaztu ezinezko garai haietan ezagutu nuen pertsona askorekiko eta Itziar eta Lasturreko eskoletako andereño izan ziren aintzinako bi lagunekiko: adiskidetasuna.

Gogora dezagun, bai Elorrixa eta baita Itziar eta Lasturgo landa-eskolak, Ostolaza Ikastetxe Nazionala martxan ipini zen 1971-1972 kurtsoarekin batera desagertu zirela. Ikastetxe honetan, Heziketa Orokorreko etapa guztiak ematen ziren eta, garai haietan martxan ipinitako haur garraio serbitzuari esker, bai Deba eta bai inguruko auzoetako haur eta ume guztiak biltzeko aukera egon zen.

Dudarik gabe, ikastetxe berria martxan ipintzeak, Debako heziketa arloan aldaketa bikaina eta garrantzitsua ekarri zuen. Baita, apaiz bezala, Anes Arrindaren heltzea ere (urte batzu lehenago, 1950. urtean). Izan ere, eta Kontxitarekin batera biak izan genituen, bakoitza bere arloan, erreferentzi puntu nagusiak herri mailan.



Ikastolan ihauteriak Kontxita "Irñudea" umez inguraturik. (1990 inguru).

Idazlan hau hasi aurretik, Kontxitak, Elorrixan andereño bezala igarotako garaiari buruzko istorioak kontatzen dizkigu. Garai haietan (50. hamarkada batez ere) kotxeak ez zeuden gaur egunean beste zabalduak eta, auzora heltzeko ibilbidea ez zen, ezta gutxiagorik ere, gaur duguna bezalakoa. Horrela gauzak, Kontxitak, aste burua bere sendiarekin igaro ondoren, goizeko trena hartu eta Itziarko geralekurarte joaten zen eta, handik Elorrixararte oinez igotzen zen...

Eta auzotik Debara itzultzeko egiten zuena ia sineskaitza iruditzen zaigu... Batzuetan, etxera itzultzeko egiten zuen ibilbidea gaur egun bururatu ere egiten ez zaigun horietakoa zen... Izan ere, eta, beraien lana egitera joaten ziren trenbideetako langileen gisa, Kontxita, tente, pauso onean, trenbideko burdinetan zehar oinez joaten zen... Orratzainen gisa, burdin baten gainera igo eta, ibiltzean gorputza ondo eutsiz, makila luze batekin orekatzen zen...

Etxerako itzulia -dio- askotan egin nuen trenbidetik ibiltzen etorrira...

Denborarekin esperientzia hartu nuen eta erraz eta ondo moldatzen nintzen... Baita Itziarko geralekua eta Deba artean dauden tuneletan zehar ere...

Inolako argirik gabe igarotzen nituen eta, trenen bat etortzen zenean garita txiki batean sartzen nintzen...

Kontxitak esaten digunez, gaur egunean desagertua dagoen Arronamendi baserrikoa izan eta trenbideetako lan-

gilea zen Joxe Egañak erakutsi zion burdinbidean zehar ibiltzen. Kontxitaren aitaren lagun zahar eta lankidea, beti laguntzeko prest zegoen gizon atsegin eta apala zen. Garai haietan esaten zen bezala, trenbidezaina zen eta, Itziar eta Deba arteko trenbidearen ardura izanik, ibiltzen egin behar zuen bide osoa egunero... Debara etorri beharrean aurkitu eta, trenik edo beste garraio moietarik ez zuenean, bere laguntza eskatzen zion Kontxitak.

Egaña -darrai Kontxitak- nire irakasle ea Elorrixatik etxera egindako bidaia gehienetako guntzaile izan zen...

Posible zenean, gure ordutegia bateratuz puntu batean elkartzen ginen eta bera, faro-la eskuan, aurretik eta ni atzetik, bideari eiten genion...

Lan hura bere ogibidearen atal bat zan eta, ondo ezagutzen zituen trenen ordutegia eta tunelak igarotzeko era seguruena...

Urte asko igaro dira garai haietatik. Hauen haritik eta, emozio handiz, Kontxitak, bere babeslea eta lagun ona izan zen Joxe Egañaren heriotza kontatzen digu. Arraroa badirudi ere, Egaña, hain ondo ezagutzen zituen tunel horietako batean trenak harrapatu eta bertan hil zen... Bere lanbidea zela eta egunean pare bat aldiz eta, noizean behin Kontxitari lagunduz, igarotzen zituen haietako tunel batean... Esperientziak ematen duen lasaitasuna eta segurantzak eraman zuten ziur aski, kontua galtzera...



80. urtean gutxi gora behera. Kontxita bere elementuan: umez inguratuta.

Joxe Egaña -dio Kontxitak- **gizon ona zen eta nik asko atsegin nuen...**

Askok sentitu nuen hain egoera gogorretan gertatu zen bere heriotza...

Urte asko igaro da ordutik, baina gaur egun, nere gaztetasuneko abentura haiek gogoratzen ditudanean, trenbide eta tuneletan zehar...

Egia esan igaratu egiten naiz eta, ez dut uste, inolaz ere, or^o1ain errepikatuko nituenik...

ELEIZAKO KATEKESIAN

Beno, dena den, zoritxarreko heriotza hura, orotara gaztetasuneko garai zoriontsuak izan ziren haiek apur bat estaltzen dituen kerezpe bezelako bat baino ez zen izan. Elorrixan irakasle bezala igarotako urteak atzean utzi eta Eleizako katekesiarekin laguntzen pasa zituen urte zoragarri eta ugarietaz hitzegiten hasten zaigu Kontxita.

Debara, apaiz berri bezala etorri zen Anes Arrindaren lana, nabaria izaten hasia zen... Bere funtzioak berezko zituen beste gaien artean eta, bere izaera langileak bultzatuta, Eleiza katekesia martxan jarria zuen zegoeneko. Eta zer zen katekesiarekin bilatzen zena? Gaiaren izenak berak eta eleizaren munduak azken 50 urte hauetan egindako lanak erantzungo digu horri.


Arrindak eskatuta eta, beraren zuzendaritzapean, debatar emakume gazte talde bat, eskola adindun umei kristau ikasbidearen oinharriak erakusten saiatzen hasi zen. Bera, ekimen hartan laguntzen hasi zirenen artean lehenengoetakoia izan zela esaten digu Kontxitak...

Ni, -dio Kontxitak- **oraindik irakasle nengoen Elorrixan... Eskola artan zerbait ikasi banuen, erakustea atsegin eta, umeekin oso pazientzia handia nuela izan zen...**

Horrela gauzak, Arrindak berehala fitxatu nindun bera eta beste batzurekin batera katekesi berrian laguntzeko...

Izan ere, ni oso sinesmen handikoa nintzen, gaur egun ere bai, eta gainera, garai haietan "Mariaren Alabak" zirenen artean nenbilen... honek, sinesmen eta izaera kontuan garai haietan suposatzen zuen guztia-ekin...

Dirudienez, lehen urteetan, bere betebeharrak eta, orduan urrun zegoen Elorrixako eskolako ordutegiak, ezinezko egiten zioten katekesia beste emakumeekin batera ematea eta, hori zela eta, lehen aipatu dugun garraio bidea aurkitu zuen, hau da, makila luze bat hartu eta trenbidetik etortzea...



1988. urtean. Ikastolan 25 urte burutu ondoren ume talde batek omenaldia egin zioten Kontxitari.

Baina, berehala, ikastetxe berri eta eskola garraioak alde batera utzi zituzten auzoetako landa eskola txikiak... Guzti honek aurreratu zuen Elorrixako irakasle bezala Kontxita Azpeitiaren garaiaren azkena... Ondoren, Telefonika konpainiak Portu kalean zeukan zentralitako telefonista izan zela esaten digu Kontxitak.

Telefonista lanetik -dio Kontxitak- **uda garaian edukitzen nuen lan pila gogoratzen dut...**

Oraindik ipini gabe zeuden telefono automatikoak eta, ondorioz, dei guztiak ezinbestez zentralitatik pasatzen ziren... Era berean, herritarrek telefonoa apenas erabiltzen zuten artean, kanpotarrek konferentziak etengabe eskatu edo jasotzen zituztela ere gogoratzen dut...

Dudarik gabe, interesgarriago izan daitekeen Kontxitaren beste egindako batzu ezagututa, telefonista gisa izandako bizipen oroitzapenak anekdota bat baino ez dira. Eta izan ere garai hau, bere bizitza sakonago ezagutzeko asmoz egin dizkiogun galderari erantzunez baino ez dugu ezagutu. Hala ere gaur egunean Deban (eta munduan) telefoniak duen garapena ezagututa oso erakusgarriak izan daitezkeen istorioak dira...

Eta horrela, eta bere biografia honetan azaltzekotan, bere bizitza sentimentalari buruz ere galdetu diogu. Dudarik

gabe garai haietako edozein emakumerentzako (eta baita gizonentzako ere) oso garrantzitsua izaten zen atal bat dugu hau. Eta batez ere, Kontxitaren kasuan bezala, aintzinako afektuek eta, sentimendu barneratuek berriek baino indar gehiago izaten duten gizon eta emakumeen artean are garrantzitsuagoa izaten den atala dela esaten ere ausartzen gara.

Kontxitak, ezkongabea dela gogoratzen digu, erantzun tinko honek, bere garaian Kontxita izan zen bezalako emakume erakargarri eta polit batengatik datorrenean duen esanahi guztiarekin. Ezkongabea beraz, (bokaziozkoa esaten ausartzen gara) bizitza sentimental gisa ulertzen denari buruz kontatzeko oso gutxi duela esaten digu.

Amodiozko jokoeekin ibili edo eta senargaia aurkitzeko aproposenak diren urteetan -dio Kontxitak- **ni irakasle nintzen Elorrixan...**

Moral erlijioso aldetik oso garai zorrotzak ziren eta konpromezu bat hasi aurretik asko pentsatu beharra zegoen...

Agian hori zela eta, ez nuen garai haietan aski erakartzen zidan inor aurkitu...

Bestalde, irakasle lana, umeak hezitzea atsegin nuen...

Aldi berean, familia bikaina neukan eta nire maitasuna beraiei eskeintzea aski zen niretzako...



1993. urtea. Jubilazioaren ordua heldu da eta Kontxitik irakasle eta gurasoen omenaldia jasotzen du.

Eta datu guztien arabera, izaera hori mantentzen jarraitu du ondorengo urte guztietan zehar ere. Izan ere, bere maitasuna umeengan eta bere familiarengan zabaldu duela argi geratu da. Gai hauei buruz hitzegiten entzuten dugunean, bere bizipenak ezagutu ditugunean eta gaur eguneko pertsona ezagututa, argi daukagu, bere gustokoa izan den bizitza bizi izan duela gure Kontxitik. Dударik gabe, Kontxita, oso zoriontsua izan da umei eman dien guztiagatik eta bere familian, izan den oihari eta erreferentzia izaten...

Azken finean, bere bizia umei eskeini izanak (Elorrixan, Debako ikastolan, katekesian, umearen egunean eta abar ugarietan) atsegin handia ekarri dio, bai berez eta, baita herritarrek berarengan erakutsi duten eskerronak eman dizkionak ere. Baldintza askorengatik beraz, ez zen ezkondu eta hori eztabaidatu ezin daitekeen gauza bat da. Eta dudaezina da aldi berean, Kontxitik, ezkondu izan balitz bere bizitza ezberdina izango zenaren ideiak ez dituenik... Gauzak horrela izan ziren, hartu zuten bidea hartu zuten eta izan ere Kontxita berak ere ez du gaur eguneko Deban, ezkondu eta, beraz, denok ezagutzen dugun "**andereño Kontxita**" denaren erabat ezberdina izango zen Kontxita Azpeitia bat ikusten...

HERRIKO IKASTOLAN

Herri ikastolaren lehen pausuak, ixilean, ia ezkutukoak, Anes Arrinda, Debako apaiza OARGI talde independentearen euskarri zeneko urteekin bat dator. Jakina denez, euska-

raren egoerari buruzko kezka handia zegoen eskolara joateko adinean zeuden haurrak zeuzkaten gurasoen artean... Izan ere, indarrean zegoen giro politikoa ez zen oso aldekoa, baina inguruko beste herrialde batzuetan bezala, Deban ere euskera bultzatzeko zerbait egin nahi izan zen... Eleizak, Ifarkalen zituen lokaletako bat utzi zuen. Eta, guraso talde gazte batek, beraien semeek eskolan egin beharrekoak euskeraz hasi zitzaten erabaki zuten... Azkenik, pertsona bezala eskeintzen zuen konfidantzagatik eta antzeko lanetan zuen esperientzia eta oneginagatik, Kontxita Azpeitia aukeratu zuten hasberria zen haurtzaindegi euskalduneko andereño bezala...

1963. urtea izan zela uste dut... Orduan, 36 urte nituen eta, dozena bat inguru haurrekin hasi nuen ikastolako lan hura...

Nire betebeharra, irakasle eta amaren artekoa, umeak aurrerago beste ikastetxe batean burutuko zituzten ikasketetarako prestatzea zen.

Ordurarte ez bezala, nik, umeekin, euskera-erabiliz hitzegiten nuen eta, baita jolastu eta gauzak erakusten saiatu ere...

Bi urte geroago, Arrindak bultzatuta berriro, lehen aipatutako OARGI elkarteak, haurtzaindegi hasiberri hura benetako ikastola bilakatu zen. Eleizaren jabeagoak ziren aldame-neko lokal batzu atondu, tituludun irakasle bat kontratatu (Belen Egaña) eta Kontxitik prestakuntza kurtsillo bat egin ondoren, haurrei heziketa orokorra eskeintzen hasi zen ikastola berria.



Santa Agedan, ume talde batekin ikusten dugu Kontxita. (Gaur egunean).

Ikastetxe hark, denborarekin izan duen garapena gauza jakina da, baina, gure ideia Kontxitarren biografia kontatzea denez, ez dugu gai horrekin jarraituko. Beraz, eta elkarrizketaren haria jarraituz, berak, ikastolan betetako lana erreza izan dela esaten digu Kontxitarak... Lehenengo, haurrak umore onez jaso, beraien lotsa eta beldurrak uxatu, konfidantza eman, beraiekin hitzegin, jolastu eta abestu eta azkenik, gogo onez, haurren adinak uzten zuena erakusten saiatu...

Kontxitarrentzat erraza izango zen, baina guretzat benetakoa lan gogorra da. Egutero, haurrentzako erosoia eta goxoa izango diren giroa sortuko duten ontasun, atsegintasun, alaitasuna eta abar eskeintzea eskatzen duen lana da. Dena den, gure protagonistak ondoko hau esan digunean bikain azaldu duela uste dugu:

Niri -dio Kontxitarak- ***beti gustatu izan zaizkit haurrak...***

Pozez egin dut beraiekin lan eta, umeak ere nirekin gustora egon zitezten saiatu naiz... Haurrek berezko dituzten beldur, lotsa ta abarrekin oso ulerkorra izan naizela uste dut.

Beti saiatu izan naiz nire maitasuna eta nire konfidantza ematen eta, aldi berean umeek ere beraiena eman ziezadaten...

Batzu arazoak zituzten... Hauei arreta handiagoa eskeini behar zitzairen, tratu bereziagoa...

Dudarik gabe, haurrekin duen onegite luze hori, hitzeginen digun "haurrak gustatze" horretan dago oinharrituta. Umeekin izandako pazientzia handiak eta hauei eskeini dien maitasunak izan dira bere lanean erakutsi duen onegiteak eta honek ekarri dizkion omenaldi eta ezagupenak azaltzen duten jarrera oinharritzkoak. Izan ere, Debako ikastolan 30 urte luze izan dira belaunaldiz belaunaldi era eta izaera moeta guztietako haurrak jasotzen.

Beti umez inguratutik. Eta, ez ikastolan soilik, oraindik denbora luzeagoan zehar doazen Eleizako katekesian, Umeen Egunean eta abarretan umei eskeinitako urte ugarietan ere.

Nik, -esaten digu- ***betidanik izan dut gustoko umeekin lanegitea. Atsegin handia jaso dut lan horrekin eta beraz ez dut meritu berezirik duenik uste...***

Nire ustez, beti gustokoa izan dudana eremu batean betetako lana egiteko aukera izateak, zorionezko bihurtzen nau...

Gauzak horrela izanik, nire kargu izan nituen haur batzuren gurasoek, zumardian nire iruki bat ipintzeko ideiak, barregura eman zidan...

BETI UMEEKIN

Atsedean bat hartzen dugu argazki batzu egiteko asmoz. Kontxidak ez du batere atsegin berari argazkirik ateratzerik, berak dioenez oso gaizki irutzen bait du argazkietan... Baina asko kostatu ondoren izan bada ere, lortu dugu azkenean zenbait argazki egitea. Eta bere biografia irudikatzeke argazkiez hitzegiten dugunean, Kontxidak parte hartu duen aktibitateen sinboloa den eta aurreko beste lan batzuetan agertu den argazki bat etortzen zaigu gogora.

Argazki zahar honek, toki eta garai ezberdinetan zehar artutako irudiez osatutako argazki honek, elizako katekesia ekartzen digu burura. Eta baita Debako jaietan ospatzen den Umeen Egundarra ere.

Katekesiarekin izan dudana lotura -dio Kontxidak- **Elorrixan irakasle nengoen garaian hasi zen eta 50 urtez luzatu da... Nire adineko emakume gazteekin hasieran eta beste emakumeekin ondoren, gustora egin ditut makina bat lan... Katekesian eta, eleizaren barruan, umeekin erlazionatuta zeuden ekintza ugarietan hartu dut parte eta, atseginez gainera... Ikastolan berezko nituen lanetaz gain, beti eskeini dizkiot katekesiari nire gaitasun eta gogo handienak...**

Dudarik gabe, Kontxidak aktibitate hoiei eskeinitako eten gabeko 50 urte luzeek askotarako eman dute... Asko gara, umeek katekesia ikasi zezaten, eleizako arduradunei lagunduz, Kontxidak egindako ilusioz beteriko lan gogorra gorai-patu dugun debatarren. Eta zer esan, gure jaiei kolorea eta dizdira ekarri dioteneta haurren partehartzea duten Umeen Eguna eta hainbat ekintzaren inguruan betetako lan ixila baina beharrezkoagatik.

Aktibitate hoietan Kontxidak izan duen parteartze nekaezina, berak esan digun esaeraren esanahiarekin azaldu daiteke soilik: "Beti sentitu izan naiz gustora umez inguratutik"... Eta hau horrela izanik, biografia honetan lan kopuru ugari horien inguruan sortutako gogorapen, bizipen edo eta lan bikainak azaltzen hastea ezinezkoa litzateke, aldizkari osoa behar izango bait genuke...

Horrela, eta horretarako, argazki batek mila hitz baino gehiago balio dituela kontutan izanik, Kontxidak utzi dizkigun argazki batzu erabiltzea onagoa izango dela iruditzen zaigu. Umeei emandako urte asko eta askotan, Kontxidak pilatutako argazki bilduma ederrerretik aukeratutako irudi batzu. Ia Debako familia guztietako haurrak, asko eta asko bait dira eskolako ohizko irudi edo eta umeek berezko dituzten jolasetan beraien andereño Kontxita inguratzen ikusten ditugunak.

Ez da erraza izango irakurleentzat hauetariko haur batzu ezagutzea, hain daude aldatuak eta... Beste neska eta mutil batzu bestalde berehala ezagutuko dituzte, ez bait dira asko aldatu.

Baina itxurak alde batera utziz, lehengo eta gaur eguneko umeen arteko ezberdintasunengatik galdetzen diogu Kontxitari... Urteetan zehar hamaika haur belaunaldi ezagutu ondoren, Kontxidak, galdera honi buruzko iritsi pertsonala izango duela iruditzen bait zaigu... Hau da, belaunaldi ezberdinetako umeen artean aldaketa nabaririk gertatu den ala ez, hobeak edo txarragoak diren, azkarragoak edo motelagoak, zintzoagoak edo okerragoak...

Nire ustez -dio Kontxidak- **gure gaztetasuneko garaiak eta gaur egunekoak konpara ezin diren eintean, orduko eta gaurko haurrak konparaezinak dira...**

Izan ere, guztiak, baita gurasoak ere, giro ezberdinetan bizi dira. Eta giro horrek dudarik gabe eragina izan du umeengan... Nik, gurasoek zer eta nola egin eta pentsatzeko dutenak umeengan eragin handia duela uste dut...

Agian, lehen, haurrak gaur egunekoak baino gehiago entzuten zuten...

Baina nire ustez lehengoak eta oraingoak behar duten, maitasunez trata ditzen da...

Hala eta guztiz ere, lehen urteetan jaso zituen umeak eta azken aldi honetan ezagutu dituenak konpara ezinak direla esaten jarraitzen du Kontxidak. Honen arabera, aintzina, eskola egun bat eta bestearen artean, umeek kalean ibili eta jolasteko denbora asko izaten zuten... Eta gaur egun ohitura berriak daude; familia osoaren egunerokoan eragina duten konbixentzia ulertzeko arau berriak... Eta zeresanik ez, hamaika ama gaztek, lehen ez bezala, etxetik kanpo lan egiteak, beraien umeengan izan dezakeen ondorioei buruz...

Eta ahaztu ezineko beste gauza bat, telebistaren fenomeno dugu eta, baita horrek dakartzan eragin eta ondorio guztiak, onak eta txarra ere. Telebistak berak soilik, ezberdintasun handiak sortzen ditu beraren eraginaren menpe dauden gaurko umeen eta eragin hori ez zuten lehengo umeen artean...

Nik ez dut -darrai Kontxidak- **denbora bateko eta beste umeen arteko baloraziorik egin nahi... Ezberdinak direla pentsatzeko dut, batzu eta besteak izan dituzten famili eta gizarte ingurunea ezberdinak diren bezala... Nik, nire lanean, denongan jarri dut arreta bera, amatasun eta maitasun bera eta, nire ustez honek beti emaitza onak ematen ditu...**

KONTXITA AZPEITIA, GAUR

Beste atsedenaldirik bat egiten dugu. Eta idazle honek, elkarrizketa hastean egin duen bezala, egongelan zehar begiratzen duenean, detaile bitxi eta polit ugari ikusten ditu. Egongela atontzen dute bai, baina ineteres handiena gure protagonistarengan sortzen duten oroimen eta gogorapen ugari erakartzen diotenean datza.

Familiaren argazkiak, pertsona berezi baten irudia agertzen duen kuadroren bat eta, Iturkaleko Azpeitia-Unanuetarren etxebizitzako altzari eta hormak atondutzen zituzten hainbat oroimen eta oparirik gure atentzioa erakartzen dute berriro. Izan ere, guzti honekin eta, familiaren santutegia bermoldatu ondoren, Kontxitak bere etxean gustora dagoen pertsona baten sentipena lortu du berriro. Ez da Iturkaleko etxebizitza eta, San Josepe auzoa ez da heraienezako hain maitea izan den Iturkale baina, gure protagonista eta Sotero bere anaia, egoerak behartutako bapateko lekualdatzeak erakarri zien pena eta egonezina gairitu ondoren lasai bizi dira berriro orain beraiena duten etxebizitza honetan.

Betidanik, anaia biak (ezkongabea biak) etxebizitza berean bizi dira. Kontxita baino urte batzu gazteagoa den Sotero ere, oso ezaguna da Debako hainbat toki eta pertsonen artean. Bere izaera jatorrak, alaiak eta lagunaren adiskide ona izateak oso pertsonaia ezaguna bilakatu dute. Bestalde, eta Kontxita bezala jubilatua dagoelarik, ohitura lasaietako gizona da eta jakin izan dugunez, etxeko lanetan asko eta ondo laguntzen duen gizona.

Sotero eta niri -dio Kontxitak- **txikiak zoratu egiten gaitu... Gure ahizpa den Pilarrek duela hilabete batzu izandako biloba-
txoak... Ez dakit... Agian, ezkongabeak izanik ez nik eta ezta nire anaia ere semerik izan ez dugulako da... Dena den, biok zortzen ipintzen gara umea gure etxera ekartzen duten bakoitzean...**

Ikastolan egiten zuen lanetik jubilatua eta, katekesia eta betidanik murgilduta egon den konpromezu guztietatik aske, gure Kontxitak, lasaitasunez eta patxadaz igarotzen ditu egunak orain. Inoiz izan duena baino denbora libre gehiago duenez, egunero, herriko pasealeku ederretan zehar ibiltzea gustatzen zaio. Izan ere, etxetik irten, hariketa apur bat egiteko ibilaldi batzu egitea eta abar gustora egiten dituen ohitura berriak ditu. Oso fededuna, eleizara joatea ohizkoa duen horietakoa, eleizaren munduarekin zerikusia duen dena eta, baita herriko beste aktibitate ugari ere, arreata handiz jarraitzen ditu. Egiten zituen aktibitateen barruan berarekin elkarlanean aritu ziren guztientzat hitz atsegin eta goxoak ditu Kontxitak. Eta, era berean, baita orain zoritxarrez botata dagoen Iturkaleko etxebizitzan izan zituen auzokide guztientzat ere... Baina Iturkaleri buruz hitzegindugu dagoeneko...

Orain, Kontxitak betidanik eta baita gaur egun ere oso gogoko dituen Debako San Rokeetaz galdetzen diogu:

Beti, umetatik -dio Kontxitak- **gustatu izan zaizkit San Rokeak... Lehen egunean jartzen dut zapi gorria eta, azken eguneraino soinean erabiltzen dut... Danborrada, entzierroak, zezenketak eta abar pozez jarraitzen ditut... San Roke eguneko zezenketa ez dut inoiz ere galtzen, zezenak asko atsegin ditut eta nire ustez gure jaietako atal garrantzitsuena dira...**

Izan ere, Kontxitak benetako saminez hitzegiten digu San Rokeetaz. Zezenketen zalea izanik, betidanik gustatu izan zaizkio plazan egoten den ambientea, musika eta kolorea. Eta ondo daki ez dela bera bakarrik, debatarren artean azpaldidanik oso sakon murgilduta dagoen sentimendu bat dela. Bestalde eta, Debako jaietako parte den Umeen Eguna ere sakon sakonetik bizi izan du Kontxitak... Debara heldu berria zenean Anes Arrindak burututako umeen jai honek, bide luze eta arrakastatsua bizi izan du gaur egunerarte. Ibilbide luze eta arrakastatsu honetan, beste emakume batzuren parteartzearekin batera, gure protagonistaren lana oso garrantzitsua izan denaren dudarik ez daukagu. Ez da hori berak esan diguna, baina herritar guztiok ondo dakigunez, bere ilusioa eta kolaborazioa nekazekin izan dira beti...

Umeen egunak, orohar, -dio Kontxitak- **atal ezberdinetan, aurretiko prestakuntza lanhandia suposatzen du... Umeekin saioak egin behar dira, hauen erropetaz arduratu eta, gauza guztiak ondo irten daitezten adi-adi egon behar da eta, beti benetako protagonistei, hau da, umei tokirik kendu gabe... Baina azkenean eta, dena ondo irten eta txiki eta nagusiak une pozgarriak bizi izan badituzte oso betegarri eta eskergarria da...**

Izan ere, jaiak, osasuntsu gozatzeko pentsatuta daude. Beti ere horrela ulertu izan ditu Kontxitak eta hori dela eta, urtero zapi gorria jantzi eta San Rokeak eskeintzen dioten ilusioan murgiltzen da gogo handiz. Eta hau da, irakurleak, Abuztuko zenbaki hau kaleratzean Kontxitak egingo duen edo egiteko prest egongo den zeregina, San Rokeetaz disfrutatu. Eta gehiagorik gabe, Jai zoriontsuak oparitzu eta elkarriketa hau egiteko aukera emateagatik eskerrik asko eman ondoren, Kontxita agurtu eta bere zereginekin uzten dugu.



Gaur egunean Kontxita bere etxean.
Bere familiaren oroimen eta gogorapenez inguratua.

MEMORIA FOTOGRAFICA

Carmelo URDANGARIN

José María IZAGA

La Enseñanza en Deba

La evolución de la enseñanza en nuestro pueblo ha tenido las mismas características que la e los municipios del entorno. Por un lado la enseñanza pública y por otro la privada. De la primera ya tenemos constancia gráfica a finales del siglo XIX de, al menos, una unidad escolar, situada en lo que era Villa Urán, enfrente de la actual plaza del mercado.

Posteriormente se construyeron dos unidades, precisamente en el solar que hoy ocupa la Plaza del Mercado: Una para niños y otra para niñas. Los nombres de los maestros Lorenzo Aparicio y de Ignacia Madina y Fernanda Lazpiur, han quedando en el recuerdo. Tuvo que pasar algún tiempo para que las primeras "Escuelas Nacionales", es decir, las públicas, llegaran a Itziar y Lastur. De las segundas, las privadas, han sido varias las que han funcionado en Deba, de las que hay que señalar la de "las monjas", que llegaron para atender a la Fundación Miquelez (el asilo) y que acabaron contando con varias unidades escolares, tras trasladar varias veces su ubicación.

A partir de 1928 se puso en marcha la "Escuela Ostolaza", que revolucionó la situación y que tan beneficiosa fue para nuestro pueblo. Para contrarrestar la nueva situación, Ostolaza era una escuela laica, los sectores más conservadores consiguieron que los Hnos, de San Viator pusieran en marcha varias unidades escolares, que en el contexto favorable de la postguerra, tuvieron un gran desarrollo.

No podemos terminar esta pequeña nota introductoria sin un recuerdo a los "auzoko maixuak", que contrataban y pagaban los baserritarras para posibilitar la enseñanza de las primeras letras de sus hijos. Publicamos a continuación nueve fotos de diversas épocas, que reflejan la evolución de la enseñanza en nuestro pueblo. Sirva de alguna manera de homenaje a los maestros que en el pasado ejercieron en Deba.



Fotografía de 1893/94 que ha dejado constancia gráfica de Millán Armero y sus alumnos, probablemente en la primera escuela pública que hubo en Deba y que estaba situada en Villa Urán. La imagen que ha trascendido del maestro Armero es la de un excelente calígrafo y músico, habiendo dirigido una banda en Deba. De izda. a dcha. y de arriba a abajo, han podido ser identificados:

Primera fila: 2º Prudencio Trecu; 3º Guillermo Irusta; 6º Antonio Zabala; 7º Pedro Galdona; 10º Gorrochategui y 13º Santiago Múgica.

Segunda fila: 3º Eleuterio Azpiazu; 4º Juan Bengoa; luego sacerdote; 6º Leocadio Lizaraburu y 7º Egaña "Belongua".

Tercera fila: 2º Antonio Esnaola; 3º Andrés Marquiegui; 5º Justo Irure y 6º Muro.

Cuarta fila: 2º Antonio Salegui; 4º Luciano Múgica; 6º Beitia; 7º Cosme Salegui y 9º José María Ulacia.

(Foto cedida por Esperanza Azpiazu).



Las Carmelitas Decalzas contaron con una escuela en el lugar situado entre las casas de Rementería y Cárdenas. Los alumnos de aquella escuela, en el año 1923/24, se fotografiaron en las escaleras de Arizaga. De izda. a dcha. y de atrás hacia adelante:

Primera fila: Luis Galarraga, Villabaso, José María Izaga, Laureano Barrera y Antón Barrera. **Segunda fila:** No identificado, Víctor Olaizola. **Tercera fila:** Leocadio Iriondo, Sabin Egaña, no identificado, Jesús Ulacia, "Zumaya", Juan José Urain, Luis Baonza, Joseba Etxeberria y Pedro Bascaran. **Cuarta fila:** Antonio Marquiegui, no identificado, Juan Andonegui, Olaizola, Nati, Julián Ulacia, Sebastián Fernández, Víctor Urcaregui e Iñaki Andonegui.

(Foto cedida por Miren Izaga).



Los alumnos de las escuelas públicas, hacia 1927 se retratan con su maestro, Lorenzo Aparicio, frente a Villa Urán. Las escuelas entonces estaban situadas en lo que hoy es un grupo de viviendas en cuyo bajo está el mercado municipal. De izda. a dcha. y de arriba a abajo:

Primera fila: Ignacio Larrañaga, Antonio Vega, Antonio Salegui, José Rodríguez, Domínguez, José Legorburu, José Manuel Berasaluce, Lorenzo Aparicio, maestro, Julián Ostolaza, José María Osa, Rafael Pérez, José María Riesgo, Angel Iceta, Javier Castro, no identificado. **Segunda fila:** Rafael Maiztegui, Víctor Urcaregui, Antonio Riesgo, Jesús Ruiz, José Joaquín Sorazu, no identificado, Ramón Azpeitia, Vicente Larrañaga, Roque Beitia, Juan Beristain, Paco Cárcamo, Salvador Aperribay, Aquilino Díaz y Martín Beristain. **Tercera fila:** Lucas Iruretagoyena, no identificado, Luis Urcaregui, Angel Galarraga, José Arrizabalaga, Valentín Dediego, no identificado, Antonio Urcaregui, José Joaquín Salegui, José María Echave, Yon Andonegui, no identificado, Antonio Díaz, no identificado, Echave, José Vega y no identificado. **Cuarta fila:** Santiago Iruretagoyena, Rafael Rodríguez, Valentín Legorburu, Antonio Salegui, no identificado, Ramón Maiztegui, Antonio Díaz, Luan Larrañaga, Fernando Ruiz, Iñaki Andonegui, Iñaki Osa, Rufino Muñozguren, Tomás Lizarzaburu y Antonio Ortúzar.

(Foto cedida por Iciar Berasaluce).



Grupo de alumnos de la escuela de San Nicolás de Lastur, hacia 1930.

De izda. a dcha. y de adelante hacia atrás:

Primera fila: Ignacio Aizpurua y Angelita Aizpurua "Martinzuritz".

Segunda fila: Josefa Oñederra "Leizaola", María Salegui "Gastañegui", Josefa Egaña "Chapasta", Donato Ansola "Artia", María Araquistain "Ziaranzar-emendikua", Jesús Larrañaga "Palonekua", Simón Araquistain "Aldazabal Aspikua", Gregorio Salegui "Aldazabal goikua", Miren Araquistain "Aldazabal aspikua", María Aguirregabiria "Charranchola", Victoria Martija "Ziaran txiki" y Angel Albizu "Soarte".

Tercera fila: Francisca Oñederra "Leizaola", Conchita "Alcorta", Rosario Ostolaza "Murgui mendi", Micaela Aizpurua "Murgui erdi", Guillerma Aramberri "Ziaran aundi", Pilar Aguinagalde "Taberna-berri" (Itziar), Juliana "Ziaranzar andikua", Encarna "Arruan", Vicenta Lazcano "Arruan", Manuel Albizu "Soarte", "Usarra txiki" (Itziar), Felisa Oñederra "Leizaola", José María Salegui "Aldazabal goikua" y Loren "Araneta". En el centro, la maestra, María Domecq, de nacionalidad francesa, pero que vivía en San Sebastián.

Entre las personas que se observan detrás aparecen, entre otras, Agustina Araquistain "Ziaranzar", Agustín Aizpurua "Martinzuritz", Julián Larrañaga "Palonekua", José Martín Aguirregabiria "Arruan" y José Salegui "Arruan zar".

(Foto cedida por Pilar Aguinagalde).



Con motivo del acto de fin de curso en la Fundación Ostolaza, probablemente en 1932, grupo de asistentes en el patio de la Escuela.

De izda. a dcha. y de arriba a abajo, aparecen entre otros:

Primera fila: Pedro Ulacia, Pedro Galarraga, Antonio Urain.

Segunda fila: Encarna Ruiz, Juanita Esnaola, Teresita Amuategui, Sole Maiztegui, Manoli Aperribay, Rafael Urcaregui.

Tercera fila: Isabel Maiztegui, María Ansorregui, Coro Riesgo, Antonio Echave, Paquita Salegui, María Jesús Lizarzaburu, Carmen de Galarraga, Angeles Epelde, Perico Esnaola, José Egaña.

Cuarta fila: Santos Echeverria, Martín Beristain, Rafael Pérez, José Mari Riesgo, Roque Beitia, José Mari Lizarzaburu, Salvador Aperribay, Jesús Arrizabalaga, Ignacio Amuategui, Sra. de Amuategui, Asun Urcaregui, Gárate, Víctor Deva, Miguel Andonegui, Leocadio Lizarzaburu, Cruz Ulacia.

Quinta fila: Juanito "Kiskillero", José Gárate, Roque Vitoria, José Joaquín Salegui, José Joaquín Sorazu, Luis Galarraga, Jesús Idiaquez, Patirki Astigarraga, José Legorburu, Juan Beristain, Enrique Alonso, José Manuel Ostolaza, Julián González Barcia, Jesús Ulacia, Jesús Ruiz, Antonio Riesgo, Leocadio Lizarzaburu, Asunción Pérez, Sorazu "zarra", Norberto Ruiz, Agustín Arriola.

Sexta fila: Pepita Urain, Brígida Iriondo, Lolita Iriondo, Petra Urain, Rosario Echeverria, Pepita Ruiz, Javi Ruiz, Carmen Ruiz.

(Foto cedida por Miguel Angel Landa).



El colegio Montreal, regentado por los Clérigos de San Viator, atendió a gran número de jóvenes desde 1934. La fotografía recoge a los componentes de uno de los primeros cursos.

Aparecen de izda. a dcha. y de arriba a abajo:

Primera fila: Angel Larrañaga, José María Aldalur, Javier Andonegui, Fortunato Aizpurua, José Unanue, Ignacio Aristi, Julio Avellaneda, Angel Aizpurua "Zumaya", Juan José Urain, Luis Baonza, Joseba Etxeberria, Pedro Rodriguez "Burduntzi", Ignacio Odriozola.

Segunda fila: Kauldi Arostegui, Iñaki Oñederra, José Antonio Yurrita, Ignacio Aizpurua, Rafael Rodriguez, Juan Gallego, José Albizu, Evaristo Otaegui, Pedro Aizpurua, José Ramón Arrizabalaga "Lizarran", Jesús Egaña "Chapasta".

Tercera fila: Hermano Manuel, Agustín Esnaola, Bastante, Antón Ortuzar, Albizu "Antzondo", Bernardino Esnaola, Juan José Arrizabalaga, Ramón Maiztegui "Pistón", Agustín Valbuena, J.J. Ostolaza "Gaztañeta", Iñaki Andonegui, José María Arrizabalaga "Lizarran", Hermano Roque.

Cuarta fila: Manuel Esnaola, Ramón Beitia, Federico Martínez, Marcos Echeverria, Sebastián Azpeitia, Polentxi Andonegui, José Fernández, Ignacio María Otaegui, Martín Galarraga, Iñaki Arrieta, Laureano Sanz, Mariano Sanz, Constantino Alcibar, José María Ostolaza "Gaztañeta".

Quinta fila: Antonio Albizu, Miguel Aperribay, Prudencio Salegui, José Ostolaza, Francisco Fernández, José Amuchastegui, no identificado, Alejo Iriondo, no identificado, José Egaña, Luis Echave, Juan Lúzar, Juan Urain, Julián Beristain, Ostolaza "Gaztañeta", Juanito Otaegui, Antonio de Diego, Rafael de Diego.

